

Mugiment Kirol Txartela

Arene kiroldegiko erabiltzaileek Eusko Jaurlaritzak sustatutako Mugiment Kirol Txartela eskatu dezake jada. Txartel honek udalerrri bateko udal kirol zerbitzura abonatuta dauden pertsonen aukera ematen die Euskal Autonomia Erkidego osoan ekimen honetara atxikita dauden kirol instalazioetan sartzeko, inolako gain kosturik ordaindu gabe. Honi esker, instalazio eta kirol mota gehiago eskaini nahi zaizkie herritarrei. Baita baliabide publikoak hobeto kudeatu, orain dauden kirol-azpiegituren erabilera optimizatuz.

Honenbestez, Bermeoko kiroldegian izena eman duen erabiltzaile batek txartela eskatu ahal du eta, eskatzen zaizkion datuak eman eta gero, Bakioko, Sestaoko, Laudioko... kiroldegiko instalazioak erabili ahal izango ditu, adibidez. Bermeo, honenbestez, ekimen honetara gehitu den Busturialdeko lehenbiziko udalerrria da.

Mugiment Kirol Txartel birtuala ahalik eta hoberen erabiltzeko, Interneterako konexioa duen gailu mugikor bat izatea gomendatzen da. Hala ere, ez da beharrezkoa izango. Gailu mugikorrik ez duen erabiltzaileak bere abonatu txartela eta NANA aurkeztuta sartu ahal izango da kirol instalazio ezberdinetara. Informazio gehiago nahi duenak kiroldegian bertan eskatu dezake.

Orain arte izena eman duten kirol instalazioak:

- **Araban:** Laudio eta Amurrio.
- **Bizkaian:** Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Santurtzi, Bakio, Barakaldo, Basauri, Etxebarri, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Sestao, Trapagaran, Ugao-Mirabelles eta Zierbena.
- **Gipuzkoan:** Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñati.